



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

172. INFORMAZIO BULETINA

> 2022ko otsaila

GIPUZKOA





NABARMENDU BEHARREKOA

> **Europako Batzordeak, Berrikuntza Kontseiluaren 2022 planean, informatika kuantikoa, belaunaldi berriko bateriak edo terapia genikoa nabarmentzen ditu, Gipuzkoako Quantum, MUBIL eta GANTT proiektuen ildo edo gai berberak**

Prensa-ohar batean, Batzordeak hitzez hitz adierazi du Berrikuntzarako Europako Kontseiluaren 2022ko Lan Programa onartu dela, eta 2022an 1.700 milioi eurotik gorako finantzaketa-aukerak eskaintzen dituela abangoardiako berritzaileak zabal daitezzen eta merkatu berriak sor ditzaten hainbat arlotan, hala nola informatika kuantikoan, belaunaldi berriko baterietan edo terapia genikoan. 2021eko martxoan aurkeztu zen Horizonte Europa programaren berritasun garrantzitsuenetako bat bezala, eta EIBk 10.000 milioi eurotik gorako aurrekontua du 2021-2027 aldirako.

Hemen nabarmendutako 3 lehentasunak bat datoz, zehazki, Etorkizuna Eraikiz etorkizuneko estrategiaren esparruan Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako 3 proiekturekin. Proiektu horiek EBren Next Generation laguntzen esparru lehiakorrean proposatu dira: Quantum, MUBIL eta GANTT dira proiektu horietarako hautagaiak.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak 2021ean lehenetsi zituen 3 multzo estrategiko handitan txertatuta daude 3 proiektuak, gobernu zentralak Next planetik laguntzak jasotzeko bereziki aproposak diren ekimenak edo planak aurkezteko eskatu zionean. Quantum trantsizio digitalaren euskal makroproiektuan kokatzen da, MUBIL ekologikoarenean, eta GANTT soziosanitarioan.

(informazio + - Kontseiluaren Lan Programaz)

(informazio + - Quantum)

(informazio + - MUBIL)

(informazio + - GANTT)



> **Europak onartu egin du Aldundiaren kamioientzako bidesari-sistema bermatzen duen zuzentaraua, eta erabileraren, distantziaren eta emisioen araberako ordainketa**

Otsailaren erdialdean, Europako Parlamentuak Eurobineta izenez ezagutzen diren garraio astunerako bidesarien erreforma onartu zuen, gainerako ibilgailuek ere erabili ahal izango dutena. Kontseilu Europarrak 2021aren amaieran onartu zuen araua. Erreformaren bidez, erabileraren edo kutsadura handienaren araberako ordainketa-eredua finkatu zen. Estatuetan 2 urteko epea egongo da berrikuntzak ezartzeko; berritasun horiekin ez da bidesaria nahitaez ordaindu beharrik izango beti, baina bai arau bateratu batzuk jarraitu, bidesaria dagoen lekuetan. Horrek berretsi egiten du Gipuzkoak bertan behera utzi behar izan zuen kamioien kanona, baina datorren urtean berriro ezarriko dena, N-1 eta A-15 errepideetan.

2030ean, jada ezin izango da erabili denboraren araberako bineta sistema herrialde batzuetan egin ohi izan den bezala, baizik eta egindako distantziagatik ordainketa, Gipuzkoan bezala. Astunak ez diren ibilgailuetan, bi ereduaren artean aukeratu ahal izango da. 2026tik aurrera, gainera, nahitaez bereizi beharko da isurketa-mailagatik; pilaketagatik tasa bat ere egon ahal izango da, eta bidesariengatik diru-sarrerak bide-sarean bertan edo pilaketa hori murrizten duten garraio-formuletan berrinbertitu beharko dira.

Irizpide horiek ezarri dituen lehen lurraldea denez, Aintzane Oiarbide foru diputatuak adierazi du Gipuzkoa "aitzindaria izan dela Europako bide-politikaren garapenean". "Ohiko erabileragatik deskontuak aplikatzeko asmoa dugu, baina Europako Parlamentuaren garraio-zuzentarau berri honen onarpenaren zain geunden".

Europaren laguntzaz finantzatu nahi den proiektu bat ere aipatu du, Gipuzkoa Living Lab, esaterako: "AP-8 eta AP-1 autobideak mugaz gaindiko proba-laborategi bat izango dira, enpresa teknologiko eta mugikortasunekoentzako ingurune erreal batean, eta ikerketak probatu eta mugikortasun adimenduneko irtenbideak garatu ahal izango dituzte. Zehazki, dagoeneko instalatzen ari garen baliza eta sentsore batzuek datuak bilduko dituzte, adimen artifizialaren bidez, Bidegiri eta gidariei denbora errealean informazioa emateko, besteak beste, honako gai hauei buruz: errepidearen egoera, euria edo elurra ari duen, auto-ilarak dauden, ibilgailu matxuratu bat dagoen... etorkizuneko errepide adimendunak diseinatzen ari gara".

(informazio +)



- > **Gipuzkoako Bazkondeak espero du Next Generation EU bezalako laguntzek 2022an %6ko hazkundera hurbiltzen lagun dezaten Gipuzkoa, nahiz eta gomendatu ez oinarritzea enpresa-planik hura jasotzeko zain egotearen gainean**

Gipuzkoako Bazkondearen arabera, Gipuzkoako BPGk portaera ona izango du 2022an, % 4,5 eta % 6 arteko hazkunderarekin. Horretan eragina izango duten faktoreen artean, elementu positibo gisa, berreskurapenerako Europako funtsen etorrera eta horiek jardueran eta inbertsioan izango duten eragina egon behar dira.

Bazkondeak 2022ko Koiuntura Ekonomikoaren txostena eta 2021eko laugarren hiruhilekoan Merkataritza Ganberak Europa mailan egindako perspektiben inkestaren emaitzak aurkeztu zituen.

Erakundearen arabera, produkzio-sareak bere proiektuak planifikatu behar ditu, Europar Batasunak aurreikusitako inbertsioaren etorreraren mende jarri gabe. Enpresen hazkunde-planak hobetzeko balio dezake, baina inola ere ez horiek berez ahalbidetu. "Enpresek ez dute Europako funtsen zain egon behar salbamendu baltsa bat bezala. Gehigarri bat dira. Ez dira lortzen errazak, ezta administrazio publikoek kudeatzeko arinak. Ez dute zerikusirik gertatu zaigunarekin, baizik eta teknologia-, energia- eta osasun-trantsizioen etorkizunarekin, eta, zentzu horretan, lurraldeak gauzak orokorrean ondo egiten ditu".

(informazio +)



> Mondragon Korporazioak Europako berreskurapen-funtsak lehenbailehen enpresa-sarera iristen hasteko eskatu du, eta, bere aldetik, 1.500 milioiko inbertsio propioekin lagunduko die, 6.400 enplegu berriak sortzeko modukoak

Iñigo Ucin Mondragon Korporazioko presidentek Forum Europaren hitzaldi batean deitoratu duenez, Europako funtsak "oraindik ez dira enpresetara iristen", baina, azaldu duenez, "oso gai konplexua da".

Hala eta guztiz ere, "dirua iristen hasteko" eskatu du, "garaiz egitea garrantzitsua da, atzeratzen badira zentzua gal dezakete eta gaur egun atzerapena dago PERTEetara sartzeko". Korporazioak "itxaropen handiak" ditu funts horietan jarrita, azpimarratu duenez, baina "ez da bakarrik hori egitea, baizik eta ondo egitea".

Mondragon Korporazioak dagoeneko iragarri zuen iraunkortasunarekin, digitalizazioarekin eta osasunarekin zerikusia duten hiru proiektu-ildotan parte hartzeko asmoa duela. Proiektu horiek 1.500 milioiko inbertsioa eta 6.400 enpleguko sorrera ekarriko lukete, gutxi gorabehera.

Fokua planetak dituen trantsizio handietan jarrita, ziurtatu zuen Europak autosufizientea izan behar duela teknologian, digitalizazioan eta industriarako balio-kateetan, eta gai horietan, gainera, negozio-aukerak daudela.

(informazio +)



> **Next Generation EU funtsak tokiko merkataritza indartzeko iristen hasi dira, hala nola Hernaniko Urbieta kalea oinezkoentzako bihurtzeko emandako 140.000 euroak eta bertako beste 4 proiektutarako emandakoak**

Funtsak Europako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik datoz; kasu honetan, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak bideratzen du. Hirigune komertzialetako merkatuei laguntzea du helburu.

Paketeak Hernaniko Urbieta kalea oinezkoentzat birmoldatzea, tokiko saltokientzako eta bertako produktuentzako erakusleihu digital bat edo saltokietako langileen prestakuntza biltzen ditu. Beste leku batzuetan bezala, Hernanin ere tokiko merkataritza, hiri- eta gizarte-bizitzaren dinamismoari hainbeste laguntzen diona, mindu egin da osasun-krisiaren eta Internet bidezko merkataritzaren eta merkataritza-gune handien lehiaren ondorioz. Laguntza hori jakinaraztean, nabarmendu da merkataritzak, merkataritzaren garatzaile diren ekintzaileak sustatzeaz gain, auzoko gizarte-harremanak ere sustatzen dituela, eta inguruko gainerako ekonomiarentzako traktorea dela.

(informazio +)



ESKUALDE POLITIKA ETA KOHESIO POLITIKA

> Landa garapenerako politika: Eusko Jaurlaritzak defendatzen du plan propioa garatu ahal izatea Euskadiri dagozkion Nekazaritza Politika Bateratuko 53 milioietarako, 13 Gipuzkoarentzakoak direlarik

Bittor Oroz Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeak otsailan egin ditu adierazpenak hedabideen aurrean, eta NPBren funtsek baserritarrentzat duten garrantzia azpimarratu du, batez beste laguntza horiei esker baitute askok beren errentaren % 20tik % 25era bitarteko. Hala ere, eskumen propioak dituzenez, uste du Euskadik plan propio bat garatzeko aukera izan behar duela, eta ez soilik bere berezitasunen arabera estatuari ekarpenak egitekoa. Ustiategi askoren iraunkortasuna NPBren laguntza horien mende dago, 3.325 baserritarrengana iristen direlarik, eta horietatik 13 milioi urtean, gutxi gorabehera, Gipuzkoari dagozkio. Gobernuak aukera galdutzat jotzen du NPB berria, jarrera zentralista gailentzen delako. Laguntza horiek Euskadirako plan propioetan kokatzeko beharra azpimarratu da. Goierriko gazteak jarduera honetara erakartzeko aurkitzen ditugun zailtasunek ez dute Zamorako gazteekin zerikusirik. Gure beharretara moldatzeko tarte handiagoa behar dugu. Gainera, lehia handitu egingo da. Gipuzkoan 8.500 jezteko behi inguru ditugu, eta aurreikusitako makrobehitegi batzuetan 23.500 jezteko ere egon litezke aurki.

Otsailan, landa-garapenera lotutako beste deialdi bat ere izan da albiste, eta, zeharka, Europako politikarekin lotutakoa; izan ere, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak berak erabili du, aurrekoetan bezala, "Leader" izeneko eremuen Europa mugatzeko irizpidea, 122 landa-udalerriri eta 93.000 biztanleri dagozkien garapen eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzak emateko. Martxoaren 25era arte irekitako deialdiak 9 milioitik gorako aurrekontua du, eta 2015-20rako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren barruan dago. Programa horrek indarrean jarraitzen du, 2023an Nekazaritza Politika Bateratuaren fase berri bat hasteko zain. Laguntzek, batez ere, honako azpiegitura hauek babesten dituzte: oinarriko zerbitzuen azpiegiturak eta landa- eta itsasertz-ingurunearen berrikuntza (5,4 milioi); enpresak sortzeko, modernizatzeko eta handitzeko inbertsioak (3,2 milioi), ekintzailtza (0,14 milioi), kontratazioa (60.000) eta etxebizitza eskuratzeko inbertsioak (0,3 milioi). Itzuli beharrik gabeko laguntzak dira, pertsona fisiko edo juridikoentzat, publiko zein pribatuentzat.

(informazio+ - NPB)

(informazio+ - Leader eremuak)



> **Eusko Jaurlaritzak hautagarritasunaren zonifikazioaren definizio europarra ere erabiltzen du Indartu programaren kasuan, 89 milioi euroko inbertsioa aktibatu zuena 21 enpresatan 2021ean, Oarsoaldean eta Gipuzkoako beste 4 udalerritan**

Zenbateko hori aktibatu zuten laguntza publikoak 7,3 milioi izan ziren Gipuzkoan 2021ean, Euskadin emandakoen herena. Inbertsio hori, enpresen ekarpen pribatua aktibatu ondoren ia 90 milioi eurora iristen zena, lehiakortasuna areagotzeko edo indartzeko proiektuetara bideratu behar zen, eta 64 pertsonako plantilla handitze batekin lotu zen.

EBk zenbait udalerrri definitzen ditu egoera ahulean dauden eremutat, zenbait irizpideren arabera, eta eremu horiek Indartu programarako hautagarriak dira, nahiz eta programa beste batzuetara zabaltzen den, hala nola langabezia-tasara. Gipuzkoaren kasuan, Oarsoaldeko 4 udalerrriak (Errenteria, Pasaia, Lezo eta Oiartzun), Bidasoaldeko 2 udalerrriak (Irun eta Hondarribia) eta Hernani ere sartu dira lehen kategorian; horiei Soraluze gehitu zaie, baina jada eremu kaltetuaren lehen definitzietatik kanpo.

Komunikabideek otsailean nabarmendu dutenez, Oarsoaldean enpresa onuradunen kopurua handituz joan da 2017tik. Urte horretako inbertsio publiko-pribatua, guztira, 15 milioikoa izan zen, eta hurrengo urteetan nabarmen gainditu da. Hainbat enpresa lagunduak izan dira Indartu-ren bidez, urtez urte, beren planetarako.

Indartu programako laguntzak jaso ahal izateko, enpresek produktu edo prozesu industrialari lotutako zerbitzuetakoak, edo erauzketa-, transformazio-, ekoizpen-industrialak izan behar dute. Programan sartzen dira, halaber, zerbitzu logistikoen enpresak, garraioa alde batera utzita, baldin eta laguntzaren xede diren inbertsioak Nerbioi itsasadarraren ezkerrean edo Oarsoaldean egiten badituzte, edo, eremu kaltetuztat jo ez arren, Euskadiko batez bestekoaren % 15etik gorako langabezia-tasa duten udalerrietan egiten badituzte.

(informazio+)



> Euskadik, Nafarroak, Errioxak, Iparraldeak eta Biarnok GATURI nekazal-elikagai eta turismo plana bultzatu dute EBren mugaz gaindiko POCTEFAn: VISIT GastrOH! marka Navartur azokan, eta Gastro-Demo bat Donostiako BCCn ere

Otsailaren amaieran, "VISIT GastrOH! Nazioarteko Helmuga" plataforma digitala aurkeztu da Navartur 2022 Nazioarteko Azokan. Horren bidez, urrats berri bat ematen da GATURI lankidetzaren barruan, mugaz gaindiko eremuko turismo eta nekazal-elikagai sektoreetako ETEen lehiakortasuna hobetzeko, Nafarroa, Euskadi, Errioxa, Pays Basque eta Béarn arteko helmuga bakarra eraikiz, baterako merkaturatze- eta nazioartekotze-estrategiak diseinatzea dakarrena.

GATURI proiektuaren esparruan, bost lurraldeek jardunaldi bat egin dute Basque Culinary Centerren. Jardunaldi honetan, bost eskualdeetako sukaldari ezagunek beren sorkuntzak erakutsi dizkiete profesional eta informatzaile espezializatuiei.

GATURI Espainia-Frantzia-Andorra Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Programa Eragilean (POCTEFAn) kokatzen da eta bertatik funtsak lortzen ditu. Programa hori EBren Interreg (eskualde arteko lankidetzazko) programa ugarietako bat da, eta, zehazki, mugaz gaindikoaren artean dago, kasu honetan, Pirinioez haraindikoa da hain zuzen ere.

GATURIn parte hartzen duten lurraldeek POCTEFAn barne hartzen dituen 3 eremuetatik mendebaldekoa osatzen dute. Erdialdeko atalak berriz, Aragoiko bi probintzia hartzen ditu, eta Frantziar estatuko hiru departamendu, erkidego horrekin muga egiten dutenak; horrela, Pirinio Atlantikoena, Ipar Euskal Herria eta Bearn barne, mendebalde zein erdialde ataletan dago. Antzeko zerbait gertatzen da ekialdekoan, Katalunia, Andorra, eta baita horiekin muga egiten duten 3 departamentu okzitaniarrak hartzen dituen. Pirinio Garaietako departamendua, hiriburua Tolosa edo Toulouse-n duena, aldi berean, erdialde eta ekialde ataletan dago.

(informazio+)



> **Ehun, elektrizitate eta tamaina handiko hondakinak Berrerabiltzeko Prestakuntza Zentroaren proiektua EBarekin eta Next planarekin bat datozen irizpideekin hasiko da Zubietan, berreskuratze-funtsetarako hautagai bihurtzeko moduan**

Berrerabiltzeko Prestakuntzako Zentroak (BPZ), ehunezko hondakinak, tamaina handikoak eta TEEH hondakinak konpondu eta berrerabiltzera zuzenduak, Zubietako Ingurumen Guneko azpiegiturak osatzen ditu, eta Gipuzkoako berrerabilpen tasa % 30 handituko dela aurreikusten da. Era berean, azpiegitura berriak energiaren eta industriaren sektoreetako CO2 isurketak % 10 murrizteko aukera izan beharko luke.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko diputatu José Ignacio Asensiok eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko zuzendari Monica Pedreirak aurkeztu dute BPZ edo Gipuzkoako Berrerabiltzeko Prestakuntza Zentroa eraikitzeke oinarritzko proiektua idazteko lizitazioa. Otsailaren 3an argitaratu zen, Diputatuen Kontseiluak onartu ondoren, eta otsailaren 21era arte egon zen zabalik deialdia.

José Ignacio Asensio: «Zubietako Ingurumen Gunea» da Estatuak hiri hondakinaren kudeaketaren ziklo osoari erantzun integrala ematen dion lehen azpiegitura, eta Gipuzkoa Europako abangoardian kokatzen du.

Komunikabideetan adierazi da BPZk EBko berreskuratze-funtsen laguntza izan lezakeela, hala nola Next Generation EU-rena.

(informazio+)



EB 2024: ESTRATEGIA

> **Aldundiko Sustapen Ekonomikoko Sailak ekonomia zirkular eta ekologikoko hogeita hamar bat proiektu berritzaile lagundu ditu, hala nola EREIAROA, Aclima ingurumen klusterrarena, eta Tabakalerarekin batera egindakoa**

Foru Aldundiak ekonomia zirkularra bultzatzeko 29 proiektu babestu zituen 2021ean, guztira 1,1 milioi euroko laguntzarekin. Ekimen horietatik 22k, gaur egun abian daudenak, foru-erakundearen babes ekonomikoa ere jaso dute, lurraldeko lehiakortasuna indartzeko eta enpresa-sarea eraldatzeko deialdi berriaren barruan. Deialdi horretara ia 4,4 milioi euro bideratu ziren. Gainerako 7ak ekintzailtza bultzatzeko deialdiaren barruan babestu dira. Jabier Larrañaga Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurunekeo diputatuak berretsi duenez, ekonomia zirkularra da Europak lehentasunezko eremu gisa ezarri duen trantsizio ekologikoaren zutabeetako bat. Lagundutako proiektuak askotarikoak direlako nabarmetzen dira, bai edukiari dagokionez, bai horiek gauzatzen dituzten sektore edo eragileei dagokienez. Enpresa txiki eta ertainez gain, enpresa-elkarteek, I+G zentroek eta klusterrek ere parte hartu dute deialdian: adibidez, Basque Culinary Center-ekin Aclima ingurumen-klusterrak garatu duen proiektua sartu da bertan.

Aclima lehiakortasun-palanka izatea du xede Gipuzkoan, 2022an Sailak finantzatzeko hiru proiektu berritzailetan parte hartuz adibidez, eta horietatik bitan liderra da. Beste sektore batzuekiko hibridazioaren bidez, ekonomia zirkularra lehiakortasun-faktore gisa sartzen du Aclima-k; hori da, esaterako, zaharbertitze-sektorearekin eta BCCrekin egindako proiektuaren kasua. Bigarren proiektu batean Mondragon Unibertsitatearekin eta mugikortasun eta logistika klusterrekin (MLC ITS) eta GAIA, Ezagutza eta Teknologia Aplikatuaren Euskal Elkartearekin lan egingo du. Aclima-k Europako Itun Berdea nabarmendu du erreferentzia gisa.

Bestalde, EREIAROA proiektuak (ereiteko aroaren ideiarekin izendatutakoa), Aclimak, aipatutako foru departamentuak eta Tabakalerak sustatutakoak – Gainera, New European Bauhausen nodoa delarik azken hori –, ingurumenaren, kulturaren eta sormenaren eremuen sektore arteko lankidetzaren oinarriak ezarri nahi ditu; sektore horiek estrategikoak bihurtu dira eta Europako susperraldi ekonomikoaren palanka gisa nabarmenduak izan dira. Ekonomia zirkularrak ez ezik, lurraldearen antolamenduari, eraginkortasunari edo bizi-kalitateari lotutako beste gai batzuk ere finkatzen ditu. Sailak % 80an finantzatzen du Gipuzkoako enpresa-sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programaren bidez, Ekonomia Sortzailea arloan.

(informazio+ - Aldundia)

(informazio+ - Aclima)

(informazio+ - EREIAROA)



> **“Europa. Non gaude eta norantz goaz?” Ekonomia Zirkularraren Nazioarteko 4. Topaketaren lehen blokea izan zen Donostian, 11 herrialdetako 700 parte-hartzaile baino gehiago bilduz, eta bertan EBk ezartzen dituen arau berriak jorratu ziren**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko diputatu José Ignacio Asensiok ireki zuen Kursaalean Ekonomia Zirkularraren Nazioarteko Topaketa, otsailaren 2an eta 3an. 11 herrialdetako ia 700 profesionalak hartu dute parte topaketa honetan, eta bere laugarren edizioan, Europako profesionalak eta liderrak elkartzeko plataforma gisa finkatu da, ekonomiaren eraldaketa berdearen inguruan. Aldundiak EZNT hau beste erakunde batzuekin lankidetzan antolatu du, hala nola EuRIC, Birziklatze Industrien Europako Konfederazioa.

Irekieraren ondoren, diputatuarekin batera, “Europa. Non gauden eta norantz goazen” lehenengo blokean parte hartu dute, Cinzia Vezzosi Birziklatze Industrien Konfederazioko lehendakariak eta Florentin Letissier Parisko alkateordeak, besteak beste. Europako araudiak eta erregulazioak berrikusi dira, hondakinak saihesteko eta modu iraunkorrean behar bezala kudeatzeko.

Jarraian, 5 bloke tematiko garatu dira. Bioekonomiari dagokionez, adibidez, nabarmendu da bioteknologiaren garapena, biodibertsitatearen babesa eta ekoizpen-prozesuen modernizazioa funtsezkoak direla ekosistema osasungarriak sustatzeko, eta horiei buruz mintzatu da, besteak beste, Ladeja Godina, Circular Changeko sortzaile eta zuzendari nagusia eta European Circular Economy Stakeholder Platformeko (ECESP) presidentea.

EZNTerako gonbidatutako 10 hizlariz osatutako talde batek Gipuzkoako enpresak bisitatu ditu. Enpresa horiek birmoldaketa garrantzitsu bati egin behar diote aurre, plastiko birziklatuaren eta erabilera bakarreko plastikoen debekuaren alde egiten duten EBko araudi berrien ondoren.

(informazio+ - EZNT)

(informazio+ - Enpresetarako bisitak)



> Renferen, Iberdrolaren eta EBko beste kide askoren eskutik, etorkizuneko hidrogeno-trenerako aurrerapen berriak eman ditu ezagutzera CAFek, FCH2RAIL bezalako proiektu paneuroparrekin

CAFek Renferen Civia aldirietako unitateak probatu nahi ditu trenbideetan udatik aurrera, horien gainean aplikatu baititu bere berrikuntzak. Gipuzkoako tren-eraikitzailea eta Renfe propulzio-sistema hibridoak garatzeko sortutako partzuergo europar bateko kide dira, Europar Batasunaren 14 milioi euroko hasierako finantzaketarekin. FCH2RAIL (Fuel Cell Hybrid Power Pack for Rail Applications, edo Trenbide Aplikazioetarako Erregai Zelula Hibrido bidezko Potentzia-paketea) proiektuak Belgika, Alemania eta Portugalgo bazkideak ditu, baita Toyotaren lankidetzaren ere, zeinak erregai-pilaren moduluak hornituko baititu. Isurketak ur-lurrunezkoak baino ez dira izango, eta hidrogenoa elektrizitate berdearen bidez sortuko da.

Bestalde, CAFek eta Iberdrolak akordio orokor bat sinatu dute, isurketarik gabeko hidrogeno berdedun trenbide-garraioa oro har bultzatzeko, FCH2RAIL Europako makroproiektuaren testuinguruan. Aurtengo apirilean, CAFek Zaragozan duen lantegian garatutako tren berriaren probak hastea aurreikusi da. Iberdrolak hornitutako hidrogeno berdeak bultzatuko du, azken horrek Bartzelonan duen lantegitik.

Europa osoan, trenbide-errailen 80.000 kilometro baino gehiagoko tartean, ibilbide horien % 40 ez daude elektrifikatuta. Garraioak eragiten ditu EBko berotegi-efektuko isurketen herenak.

(informazio+)



> **Hidrogenoaren Euskal Korridoreak eta Aldundiak xehetasun gehiago eman dituzte Gipuzkoan proiektuak izango duen garapenari buruz: BH2C Elkarteak dio kritikoa dela Next Generation funtsen deialdien arintasuna**

Hidrogenoaren Euskal Korridorearen Elkarteak (BH2C), 78 erakundek osatua, 200 milioi inbertituko ditu 2022an, 2026ra arte aurreikusitako 1.500 milioietatik. Haren bozeramaile José Ignacio Zudairek, Petronorren zuzendari kargu bat duenak, zehaztu zuenez, BH2Cren asmoa da Next Generation EUren funts europarrek guztizkoaren % 30 eta % 40 artean ordaintzea; 2020-2030 epealdian, horrek 885 milioi euro ekar litzake, 2.951 milioi izango bailirateke guztira. 2021aren amaieran, gobernu zentralak 2 deialdi argitaratu ditu, Zudairek epe laburrean ebazteko eskatzen dituenak, 2023an eta 2024an proiektuak martxan egon daitezen; nabarmendu zuen une kritikoa gaudela, denbora erabakigarria ez galtzekoa. "Proiektuak martxan daude, denbora eskatzen dute eta inbertsioa behar dute".

Bozeramaileak baieztatu duenez, Euskadiko 3 hidrogeneretako bat Gipuzkoan kokatuko da, eta lehenengo funtzioa autobusak elikatzea izango da. «Oso ekimen interesgarria da, prozesu guztiz berria eta diferentziala, eta horrekin hidrogeno berdea ere sortu ahal izango da, kasu honetan, hiriarteko garraioa deskarbonizatzeko, gure hidrogeneratik elikatuz, Energiaren Euskal Erakundearekin lankidetzan, Lurraldebusen autobusak. Proiektu partekatu horretan, Aldundiak hidrogeno-sortzaile gisa eta kontsumoaren protagonista gisa funtzionatuko du, eta Petronorrek logistika ekarriko du; izan ere, hidrogeno hori Zubietatik jasoko du, eta Abantoko gure elektrolizatzailean ekoizten denarekin osatuko luke, Lurraldebusen autobus beharrak handiagoak izango balira.

Gipuzkoako Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako diputatu José Ignacio Asensiok azpimarratu zuen proiektuaren hasierako helburua – hasteko data finkatzeke duena – 500 tona hidrogeno berde sortzea dela, Zubietako biometanizazio-instalazioan hondakin organikoak (edukiontzi marroikoak) tratatzetik abiatuta. Ekarpen horrekin hiriarteko bost autobus eta zaborretarako beste bost kamioi mugi litezke. Etorkizunari begira, "egunean 2.000 tonara iritsi nahi dugu. Partzuergoa osatzen ari gara, eta Aldundiak milioi bat euro sartu ditu GHKn, baina proiektuaren inbertsio globala handiagoa, 11 edo 12 milioi euro ingurukoa da".

[\(informazio+\)](#)



> **EIT Manufacturing, Teknologiaren Europako Institutuaren manufaktura-adarraren mendebaldeko dibisioak, Donostian du egoitza, eta Adegiren eskutik aurkeztu ditu berrikuntzarako laguntzak, 1,5 milioirainokoak proiektu bakoitzeko**

EIT Manufacturing-en Espainia, Portugal eta Frantziarako egoitza Donostian dago, eta hemendik "2023 proposamenetarako deialdia" egin du, lehiakortasuna hobetzen duten berrikuntza digital edo jasangarriko osagaiak dituzten fabrikazioaren arloko proiektuak, prestakuntza-arlokoak barne, aurkezten dituzten mota guztietako erakundeentzat.

Zehazki, 4 arlotan banatuko da: automatizazioa, adimen artifiziala, fabrikazioaren bikiak edo simulagailu digitalak, eta industria zirkularreko eta ekologikoko teknologiak, barne direla elkarlaneko robotak eta fabrikazioaren malgutzte-soluzioak.

Proiektu bakoitzeko 1,5 milioi arteko finantza-laguntzaz gain, proposamen onenek EIT Manufacturing-eko inbertitzaileen eta bazkideen sarerako sarbidea izango dute. Sare horrek aurrekontuaren zatirik handiena (400 milioi 2026ra arte) berrikuntzarako deialdi mota horietara bideratu nahi du. Aurrekoan, EB osoan, 290 proposamen aurkeztu ziren eta 81 onartu; horietako asko enpresen, zentro teknologikoen eta unibertsitateen arteko partzuergoetan.

Euskadin egoitza duten hainbat erakunde aurretik ere aurkeztu dira, eta, horrez gain, EIT Manufacturing-eko bazkide iraunkorrak dira, hala nola Aernnova, Tecnalia, Mondragon Korporazioa edo Euskadiko Manufacturing Alliance. Eusko Jaurlaritzak ere babestu ditu deialdi horiek Elkartek programaren bidez.

Gipuzkoako Adegri patronala laguntzen inguruko jardunaldi informatibo baten anfitrioi izan zen.

Deialdiaren bigarren fasea apirilaren 29ra arte egongo da zabalik eta lehen hautaketa erabakia uztailaren 11 baino lehen izango da.

(informazio +)



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

- > **Minbiziaren aurkako Europako Plana: prebentzioa, detekzio goiztiarra, tratamendua eta minbiziaren zainketa areagotzeko neurri berriak**

(informazio+)

- > **Kohesioari buruzko txosten berriak erakusten du EBko eskualdeen arteko aldeak murrizten ari direla Batasunaren babesari esker**

(informazio+ - Europako Batzordea)

(informazio+ - Eskualdeetako Komiterako informazio-bilkura. EBrako Euskadiren Ordezkaritzaren txostena)

- > **Batzordeak Europako mendekotasun estrategikoen azterketa sakon eta eguneratua aurkeztu du**

(informazio+)



> **Ihobek Euskadin fabrikatutako produktu zirkularren katalogo bat aurkeztu du, Europako Batzordeak sektoreetarako dituen irizpideak aipatzen dituen**

“20 urteko ekodiseinua. Made in Euskadi” katalogoa, formatu fisiko eta digitalean argitaratua, produktu-kategorien zerrenda zabala biltzen duen lehena da Europan.

Katalogoak fitxa tekniko indibidualetan biltzen ditu produktu zirkular bakoitzaren ezaugarri eta alderdi nagusiak, eta hamar sektoretan banatzen ditu: Industria kimikoa, metalaren sektorea, altzariak, automobilgintza, elikadura, ekoizpena eta kontsumoa, makineria, garraioa, elektriko-elektronikoa, eta eraikuntzako materialen sektorea.

Sektore horietako batzuei dagokienez, Europako Batzordeak ezarritako politikak nabarmentzen dira. Adibidez:

Kontsumoaren sektorera bideratutako produktuak fabrikatzen dituzten industria-sektoreak ehungintzan eta paperezko produktuetan zentratuago daude — elikagaiak, altzariak eta eraikuntzakoak alde batera utzita —. Europako Batzordeak Ehun Iraunkorren Estrategia hasi du, eta horrek nabarmen aldatuko du jokoaren esparrua, plastikoekin gertatu zen bezala.

EAEko elikagaien eta edarien merkaturatze- eta banaketa-jarduerek 50.000 lanpostu baino gehiago sortzen dituzte, eta nekazaritzako elikagaien sektoreak urtean 6 milioi tona elikagai inguru kontsumitzen ditu. Europako Batzordeak elikagaien bioekonomiaren eta ingurumen-aztarnen aldeko apustua egiten du, eta horrek aukerak sortzen ditu sektorean, hala nola prozesuen ekoeraginkortasuna, azpiproduktuen berrerabilera edo ontzi iraunkor berriak.

«Sektore elektriko eta elektronikoak Euskadiko industriako balio erantsi gordinaren % 15 hartzen du, eta sektore horretako lehengaiak beren kostuen % 57 hartzen dute Euskadin». Berriztagarriek eta ekipo elektriko-elektronikoek diseinutik heldu beharreko eraginkortasun energetikoaren baldintzak bete behar dituzte dagoeneko, eta Europako Batzordea arau berriak garatzen ari da iraunkortasuna sustatzeko, diseinu berriekin, 4.0 mantentze-lanekin, birmanufakturarekin, birziklapen aurreratuarekin eta negozio-ereduetako aldaketekin.

(informazio+)



> **Ihobek Klima 2050 estrategia ebaluatzeko egindako lehen azterlana**

Ikerketak egiaztatzen du erakunde guztiak beren ahaleginak bizkortzen ari direla berotze globala aurreikusitakoa baino azkarragoa dela ikusita.

Europar Batasunak mundu mailan erronka honen buru izan nahi du eta 2050erako karbono-isurketen lehen kontinente neutroa izan nahi du. 2020an, EBk helburu lotesleak ezarri zituen, hala nola berotegi-efektuko gasen emisioa % 55 murriztea 1990. urtearekin alderatuta, eta kontsumitutako energien % 32, gutxienez, berriztagarriak izatea.

Horregatik, EAEko Klima Aldaketaren Estrategiaren (Klima 2050) 2015eko ibilbide-orria eguneratzeko dago. 2005-2019 aldian isurketak % 26,9 murriztu dira; beraz, erritmoa oraindik ez da nahikoa. Berriztagarrien helburua % 14,6ko kuantan dago oraindik, eta 5 urtean % 1,3 baino ez da hazi.

Ihobeko Ekintza Klimatikoko zuzendariak adierazi zuenez, "erritmoa eta ahalegina bizkortu behar ditugu, Next Generation izeneko funts europarrek eskaintzen diguten aukera aprobetxatuz".

(informazio+)



EUROPAKO DEIALDIAK

> **Merkatu Bateraturako programa. ETEen lehiakortasuna (SMP-COSME). Jardunbide jasangarriak hartzeko lankidetzak. (SMP-COSME-2021-SPP-01)**

- Gizarte Zibileko Erakunde edo GKEen eta ETEen arteko eskualde barruko lankidetzari laguntzea.
- Negozio-eredu iraunkorrak eta gizarte- eta ingurumen-eraginkortasuna lortzearen aldeko ekintzak.
- GZE/GKEen, ETEen eta Enterprise Europe Network sareko beste kide batzuen partzuergoak.
- Proiektu arrakastatsuak handitzeko aukerarekin.
- Aurrekontua: 400.000 euro

(informazio +)

> **Merkatu Bakarreko Programa – ETEen lehiakortasuna (SMP-COSME). Covid-19aren osteko susperraldia Turismo Iraunkorrean, eta ETEei laguntzea. SMP-COSME-2021-TOURSME-01**

- ETEentzako, industriarako, pandemia osteko susperraldirako eta ekosistema turistiko iraunkorretarako Europako estrategien arteko elkarguneak egiteko diru-laguntza.
- Partzuergoetarako eta lankidetzarako aukera balio-kateen eta ekosistema turistikoen barruan, ezagutza-transferentziak barne, estatuez gaindikoak eta mugaz gaindikoak
- Berreskuratze-inbertsioetarako jardunbide onenak trukatzeara.
- ETEen eta sektoreko beste enpresa batzuen trantsizio ekologiko eta digitalera, eta berrikuntza eta erresilientziara bideratua
- Negozio-eredu berriak: ekonomia zirkularra, datuaren ekonomia...

(informazio +)

> **LIFE programa. Ingurumenazko prestakuntza proiektuak. (LIFE-2021-PREP-)**

- "Prestakuntza" laguntzak EBk epe laburrerako laguntzailatzat jotzen dituen lehentasunetara bideratzen dira, bere helburuei begira.
- LIFE-2021-PREP-Environment: ekonomia zirkularra eta bizi-kalitatea (milioi 1 €)
- LIFE-2021-PREP-Natura: natura eta biodibertsitatea (3 milioi €)
- LIFE-2021-PREP-Network: LIFEren Kontaktu Puntu Nazionalen sarea indartzea (0,8 milioi euro).

(informazio +)



> **Horizon Europe. Klusterra 6. Elikadura, Bioekonomia, Natur Baliabideak eta Nekazaritza Gobernantza berritzailearen, ingurumen-behaketaren eta Itun Berdeari laguntzeko irtenbide digitalen helburuaren atala. HORIZON-CL6-2022-GOVERNANCE-01**

Koordinazio- eta laguntza-ekintzak

- Elikadura-sistemak. Gizarte-mobilizazioa horiek eraldatzeko eta baterako onurak lortzeko (8 milioi €)
- Kontsumitzailearengan zentratutako etiketak oinarri biologikoko produktuentzat (3 milioi €).
- Nekazaritza Politika Bateratua: tresna eta metodo berritzaileak plan estrategiko eraginkorren diseinua eta laguntza, jarraipena eta inplementazioa ebaluatzeko (4 milioi euro).
- Gaikako sareak, ezagutza erabilgarria biltzeko eta partekatzeko (9 milioi €)
- Berrikuntzako Europako Partenariatueta Talde Eragileen Estatuz haraindiko emaitzak indartzea, esandako sareen bidez (4 milioi euro).
- Eragile esanguratsuren proiektuak hobeto prestatzea, lan kosortzaileagoa egiteko (5 milioi €).
- EBren aholkularitza-sareak garatzea uraren erabilerrari buruz (8 milioi €).

Berrikuntza-ekintzak

- Teknologia klima-aldaketaren ondorioetarako behaketa-datu multzoak eskuratzeko (20 milioi €).
- Herritarren behaketak onartzea eta baliozkotzea, eta haien parte-hartzea sustatzea, adituen erabakiak osatzeko (14 milioi euro).

Baterako finantzaketa-ekintzak

- Klimaren aldetik neutrala, iraunkorra eta produktiboa den Ekonomia Urdinerako Europako Lankidetzak (23 milioi €)

Ikerketa eta Berrikuntza Ekintzak

- Itsas politiken geruza anitzeko gobernantza gauzatzea (6 milioi euro)
- Uraren gobernantza, sistema hidrikoen iraunkortasun ekonomikoa eta finantzarioa (10 milioi euro).
- Ingurumen-behaketaren soluzioak, «One Health» (giza osasunaren eta ingurumen-osasunaren baterako ikuspegia) erronkak betetzen laguntzen dutenak. (10 milioi €)
- Herritarrak ahalduzko ikuspegiak eta tresnak probatzea, elikaduraren eta nutrizioaren arloan datuen eskubideez baliabideak daitezkeen (8 milioi euro).
- Ekoizpena eta nekazaritza-ingurumeneko baldintzen kontrolatzeko sentsoreen datuak zabaltzea (denbora errealean) EB osoan (15 milioi euro).

(informazio +)

"EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN" webgunea